

## GAKO EKONOMIKOAK

- Agenda politikoa, Banku Zentralen adierazpenak eta petrolioaren prezioa arreta-gune nagusi.
- Burtsako emaitza mistoak, itxiera negatiboekin Europan, emaitza mistoekin Estatu Batuetan eta emaitza positiboekin Asian.
- Tasen gorakada orokorra eta arrisku-primen beherakada.
- Dolarraren balio-galtzea.

## MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Ekinean arreta-gunea agenda politiko eta instituzionalean egon da, baita petrolioaren prezioaren mugimenduetan ere. Makroingurunea bigarren mailan gelditu da eta datu positiboak eman ditu Europan; EEBBetan, berriz, emaitzak mistoagoak izan dira, baina izan ohi duten sendotasunaren barruan. Gertaera politikoei dagokienez, Europan, Macron-ek gehiengo absolutua lortu du Frantziako legegintzarako hauteskundeetan; hori dela eta, bere programan jasotako erreforma ekonomikoak aurrera atera ahal izango ditu. Italian, hauteskunde-erreforma gauzatzeko akordioa hautsi egin da; beraz, hauteskundeak udazkenean aurreratzeko aukerak nabarmen murriztu dira. Erresuma Batuan Theresa May-k hauteskundeak irabazi ditu, baina gehiengo absolutua galdu du; horrek ziurgabetasuna areagotu eta EBtik ateratzeko akordioari buruzko negoziazioak korapilatu ditu. EEBBetan, Trump-ek lege-proposamen bat plazaratu du osasun-sistema berriari buruz, bere zerga-erreforma irrikatua ezartzeko diru-funtsak lortzeari begira. Politika monetarioari dagokienez, Europan, EBZk, hilean behin egiten duen bileran, aldaketarik gabe eutsi zion bere programari, haren diskurtsoa horren lasaia izan ez bazen ere. Gainera, ondoko agerraldi batean, Draghi berriz ere azaldu zen baikor Eurozonaren ekonomiaren bilakaerari buruz; zorra erosteko programan aurrerago gerta daitekeen atzerakadari buruzko eztabaida areago piztu zuen horrek. Ingalaterran, BoE-k ere ez zuen fitxarik mugitu, Kontseiluan iritzi-zatiketa handia dela azpimarratu bazuen ere. EEBBetan, Fed-ek konplitu egin du: interes-tasa 25 o.p. igo ditu, igoeren geroko erritmoei buruzko aurreikuspeni eutsi die eta bere balantzea normaltzeko planari buruzko xehetasunak plazaratu ditu. Azkenik, petrolioaren prezioa azaroz geroztiko kuotarik baxuenak erdietsi zituela azpimarratu behar da, hila bukera gorakada handia izan bazuen ere, eta horren ondorioz, OPEP-ek "shale oil"en goraldiaren aurrean egindako ekoizpen-murrizketen eraginkortasunari buruzko susmo txarrak aienatu ditu. Enpresa-alorrean, Santanderrek Banco Popular erosi du euro bateko prezio sinbolikoaren truke; eta Italian, Veneto Banco eta Popolare di Vicenza bankuen likidazio ordenatuaren berri eman zen.

## ERRENTA ALDAKORRA

Munduko burtsek saldo negatiboekin itxi dute Europan (Eurostoxx50 -% 3,17), saldo mistoekin EEBBetan (Dow Jones +% 1,62, Nasdaq -% 0,94) eta emaitza positiboekin Asian (Nikkei +% 1,95). Europan, indize orokorra irabazi arinekin mantendu zen joan den 27ra arte. Hala ere, EBZko kide batzuek politika murriztzaileagoen alde altxatutako ahotsak direla-eta, pizgarriak berehala kentzeko balizko seinaleztat jo zuen merkatuak, eta hila bukera burtsa-indizeek izan dituzten zuzenketa gogorrak azalduko luke horrek. EEBBetan, Europaren kutsapen-efektuak eta Trump-en osasun-erreformaren bozketan izandako atzerapenak eragin txarra izan zuten Wall Street-en, Dow Jones eta S&P500 hila berde kolorez amaitzea eragotzi ez bazuten ere. Japonian, Yenaren balio-galerak indize japoniarra sostengatzen zuten.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2017ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	10.444,50	EUR	%-4,00	%11,68
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.441,88	EUR	%-3,17	%4,60
S&P-500	AEB	2.423,41	USD	%0,48	%8,24
DOW JONES	AEB	21.349,63	USD	%1,62	%8,03
NASDAQ 100	AEB	5.646,92	USD	%-2,45	%16,11
NIKKEI-225	JAPONIA	20.033,43	JPY	%1,95	%4,81
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.010,80	USD	%0,54	%17,23
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	1.916,43	EUR	%0,25	%9,43

Iturria: Bloomberg

## ERRENTA FINKOA

Zor publikoaren merkatuan, tasak igotzen hasi dira ekinean bai Alemanian (bund-ak gora egin du +% 0,16tik % 0,47raino) bai EEBBetan (10 urterako tasa +% 0,10, % 2,30an amaituz), eta arrisku-primak jaitsi egin dira Europako periferikoetan (Espainia 125 o.p.etatik 108 o.p.etara igaro da ekinean). Ia hilabetea amaitu arte, kurbak lautu egin dira Atlantikoaz bi aldeetan, epe luzerako tasak murriztu egin baitira, inflazio-aukera txikiagoei esker. Hala ere, azken astean, Banku Zentralen mezuak, eta batez ere EBZrena, erasokorrak izan ziren, eta horren ondorioz, zor publikoaren errentagarritasunak igotzen hasi ziren, oro har.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2017ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,33	0,00	-0,01
	6 HIL.	-0,27	-0,02	-0,05
	12 HIL.	-0,16	-0,02	-0,06
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,57	0,14	0,19
	5 URTE	-0,22	0,21	0,31
	10 URTE	0,47	0,16	0,26
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,26	0,02	0,02
	5 URTE	0,32	-0,03	0,05
	10 URTE	1,54	-0,01	0,16

Iturria: Bloomberg

## DIBISAK

EBZren mezuek euroaren balio-irabazte nabarmena ere eragin zuten, eta hilabetea amaitu du % 1,62 batuz; dolarrak, ordea, % 1,62 batu du eta yenarekin gurutzatzean batura hori % 3,08koa izan da. Librak ondorio honen parte bat konpensatu du, BoE-ko lehendakariak herrialdeko moneta-politika gogortzearen alde egindako adierazpenen ondoren.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg